

Gaurko Alardearen aurretikoak

Hondarribia, 33. zk., 1989-09: 8.

Jakina denez, gaur Hondarribian eratzen den Alardearen oinarria, frantsesek 1638go uztailaren lehen egunean bere aurka burututako eraso eta inguraketa izan zen. Eta bi hilabete gero, irailean, honen haustea eta frantsesak derrotan jartzea.

1638ko irailaren 7an, hain xuxen.

Honen lehen urtebetetzean, 1639an, irailak 4, hartu zuen Hondarribiko udalak Guadalupeko Amari eskerrak emateko elizkizunak eta herri-jaiak antolatzeko erabakia. Eta hala igo zen lehen aldiz laster, irailaren 8an, hondarribitarrez osatutako bataloi bat Guadalupeko kaperara.

Aurten betetzen dira, beraz, gertaldi hau jazo zela 350 urte.

Herri batek egindako promesa betetzeko asmotan.

Ikus dezagun garaitsu honetan Euskalerriko gerra arazoak nola eramaten ziren.

Askotan, geuk idatzita utzi dugunetik baino zehatzago jakin izan ditugu gure pasadizoak hemendik pasatzen ziren atzerriko bidaiariengandik, honek idazteko ohitura handia baitzuten. Frantsesa zen Delaporte Abateak¹ 1755an egin zuen bidaiaz baliatu gintezke honetarako: "Bizkaia",² Gipuzkoaz eta Arabaz ere osatua dago. Herritar guztiak legez osorik berdinak dira, eta nobleziak ez du beste aginpiderik arazoizkoa baino. Herria, bereak diren lege bidez gobernatzen da, berez banatzen du bere presupostua, merkataritza libre da, *eta bere tropa bidez zaintzen du bere askatasuna*. Soldadutza propioa den hau ez du erregeak herritik kanpora irtenarazteko eskubiderik. ez du bere dirurik jasotzen, herrikoek baizik, hortarako beharrik suertatzen denean. Bilbo da Bizkaiko buru oso leku politean dago kokatua, eta bertan bizimodua oso atsegina da, bizitasun handia duen portua du, eta merkataritza oso aberatsa da. Beste hiri nagusiak: *Hondarribia*, Donostia eta Gasteiz dira.³ Hiri hauek denak nire eskuinera utzi nituen Nafarroarako bidea hartzean;⁴ libre da, bere arazo guztiak Iruñean bertan dagoen Kontseilu Nagusiak epaitzen ditu; jakina da Herri hau Espainiak bortxaren lege bidez bereganatu zuela, bere errege Albret-eko Juan, zuzeneko agintaria, bizi zela; Foix-ko Katalinak, bere emazteak, esaten zion bezala: "Zu Katalina jaio bazina, eta ni don Juan, ez genuen Nafarroa galduko".

Hauek dira, XVIII. mendean Euskal Herriaz kanpotar batek emandako notiziak.

Barrutik ikusitako jende-biltzeari dagozkien beste batzu, mende bereko Aita Larramendik emango dizkigu zehazki.⁵

¹ *Revista Internacional de Estudios Vascos*. "El viajero francés (1755), por el Abate Delaporte", XIX I., 295 or.

² Garai hartan "Bizkaia" bezala ere ezagutua zen gure "Hirurak bat".

³ Hondarribiak garrantzi handia du XVIII. mendean, "Frantzia"ren mugan gotorleku zelako. Iparraldea frantsesa da abate frantsesarentzat!

⁴ Nafarroa, gero aitortzen du zergatik, Erregordetza da garai hartan.

⁵ *Corografía de Guipúzcoa*, "Del gobierno militar de Guipúzcoa", 109-110 or.

Gipuzkoa beti berez errepublika askea izan denez, gobernu militar berezia izan du. Modu honetara, askatasunean, erantsi zen Gaztelara 1200gn. urtean.

Orokorrean, gobernu hau honelakoa da:

Frantziarekin gerra sortzen denean, lehen neurriak diputazio orokorrak hartzen ditu, eta hauek nahiko ez badira, biltzar berezia bilerazten du, eta biltzar berezi honek aukeratzen ditu koronel-jenerala, gerra-diputazioa eta beste. Koronela, herriko tropen buru denez gero, haren mende dago eta muga honen barruan ditu harremanak erregearen tropak agintzen dituzten jeneralekin.

Gerra-diputazio hau, Gipuzkoako diputatu guztiek, korrejidoreak eta Probintziako idazkariak osatzen dute; beraz. berak du aginte osoa, eta bere kapitain eta sargentoak gerran gaituak dira. Gipuzkoarrez osatutako tropa hau (adinez 18 urtetik 60 artekoak), konpainietan banatzen da, bere kapitain eta ofizialekin.

Hauei Oñatiko konpainiak eta abar gehi-tuaz.

Gerrako diputazioak Hernanin du bere arma-plaza, handik irteten dira tropen espedizio eta operazio guztiak. Eta ez da sinestekoa tropa hauek zein bizkor prestatzen diren, bere kabo, bandera, txilibulu, danbor eta guzti, deituak izan diren lekuetan.

Alxada edo biltze horiek betidanik egin ohi dira modu honetara; ofizioko militarrek pentsa dezakete hortik ez dela zalaparta eta nahaste besterik aterako, baina ez da inoiz horrelakorik gertatu.

Eta behar izan denean, bizkaitarrak etortzen dira laguntzera.

Hara, bada, orain 350 urte Hondarribiari dagokionez ere gauzak nola gertatuko ziren.